



Euskadiko nekazaritza elikagaien
katearen kontrol ofizialerako Plana
2021-2025

Euskal Autonomía Erkidegoko
Nekazaritza Elikagaien Katearen
Kontrol Ofizialeko Planean jasotako
Kontrol Ofizialen **Eraginkortasuna**
Egiaztatzeko Prozedura

2021-2025

EDUKIEN AURKIBIDEA

1. Atarikoia.....	2
2. Prozeduraren Helburu Zehatzak	3
3. Giza Baliabideak.....	3
4. Egiaztapena Gauzatzea.....	4
5. Emaitzen eta adierazleen azterketa	7
6. Adostasun ezaren aurkako neurriak	8
7. Urteko txostenak gauzatzeko	10
8. Eranskinak	10

1. ATARIKOA

2017/625 Araudiak ezartzen du agintari eskudunen erantzukizuna izango dela kontrol ofizialen eraginkortasuna, egokitasuna, inpartzialtasuna, kalitatea eta koherentzia bermatzea, maila guztietan.

Erregelamendu horrek ezartzen du, halaber, agintari eskudunek prozedurak eta/edo mekanismoak ezarri beharko dituztela egiten diren kontrolen eraginkortasuna eta egokitasuna bermatzeko, eta neurri zuzentzaileak hartu beharko dituztela egiaztapen horretan aurkitutako gabeziak gainditzeko.

Kontrolen eraginkortasuna kontrol-prozesu ofizialaren hainbat zatitan egiazta daiteke, hainbat unetan eta hainbat eskumen-mailatan, hala modu zentralean nola erkidego-edo lurralde-mailan.

Euskadiko Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Planaren testuinguruan, kontrol ofizialak egiaztatzeak honako hauek hartzen ditu barne: alde batetik, kontrol ofizialak behar bezala egiten ari direla egiaztatzea, onetsitako Programa eta Prozedurei jarraikiz (Kontrol Programak betetzen direla gainbegiratzea); bestetik, Programa eta Prozedura horiek ondo planteatuta daudela, hau da, haien sorrera eragin duten helburuak betetzen direla, egiaztatzea (Kontrol-sistemaren eraginkortasuna egiaztatzea).

2017/625 Araudiari jarraikiz, ikuskaritzak kontrol-sistemaren eraginkortasuna osorik edo zati batean ebaluatzeko tresna bat ere badira, hautatutako irismenaren arabera. Ikuskaritzak independentea den eta ikuskatzen den kontrolarekin zerikusirik ez duen organismo batek egingo ditu. Plan honetan biltzen diren Kontrol Ofizialeko Programa guztiei barne-ikuskaritzak egingo zaizkie, 2021-2025 aldirako Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Planaren Ikuskaritza Programan zehaztutako moduan.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren (MAPA) esparruan, autonomia-erkidego guztietako kontrolen homogeneotasuna bermatze aldera, egiaztapenari dagokionez, gutxieneko oinarrizko kontzeptu batzuk bateratu dira, helburu operatiboan eta adierazleen sistema batean oinarrituta, eta horiek Elikakatearen Kontrol Ofizialerako Plan Nazionalaren kontrol-programa guztietan ezarri behar dira. Era berean, urte bakoitzaren amaieran emaitzak eskatzeko eredu bat adostu da, urteko txostenaren bidez.

Aipatutako erreferentziak aintzat hartuta, Euskadiko Elikakatearen Kontrol Ofizialerako Planaren Koordinazio Talde Horizontalak prozedura horizontal hau adostu du egiaztapen hori aurrera eramateko; hori oinarritzat hartuko dute Euskadiko elikakatearen kontrol-programa ofizial guztiek, eta programa bakoitzak beharrezko xehetasunak jasoko ditu.

2. PROZEDURAREN HELBURU ZEHATZAK

Prozedura honen xedea da sistematika bat ezartzea kontrolen kalitatea, koherentzia eta eraginkortasuna bermatzeko. Horretarako, honako hauek egiaztatuko dira:

- Kontrol ofizialak ezarritako programen eta prozeduren arabera egiten ari direla.
- Kontrol Programa exekutatzeari esker, bermatu daiteke alor bakoitzeko legedia (elikagaien eta pentsuen higieneari buruzkoa, animalien osasunari eta ongizateari buruzkoa eta beste lege batzuk) eta Kontrol Plan bakoitzean zehaztutako helburu zehatzak betetzen direla.
- Neurri zuzentzaileak hartzen ari dira hautemandako gabeziak konpontzeko.

3. GIZA BALIABIDEAK

Hauek dira Kontrol Programetan parte hartzen duten pertsonak:

- **Ikuskariak:** ikuskaritzak tokian bertan edota datu-baseak erabiliz egiten dituzten pertsonak. Administrazioako langileak edo horretarako prestatutako kanpoko langileak izan daitezke.
- **Kontrol Programa bakoitzeko arduradunak:** ikuskaritza-lanak egiten dituzten langileen gainean erantzukizun funtzionala duten pertsonak.
- **Zerbitzuko buruak diren pertsonak.** Aurrekoen gainetik daude erantzukizun-hierarkiari dagokionez.
- **Koordinaziorako Talde Horizontaleko ordezkariak:** Kontrol programa bakoitzaren ordezkariak Koordinaziorako Talde Horizontalean, hark berariaz ordezkari izendatu dituelako.

Baliteke Kontrol Programako arduradunak izatea zerbitzu horretako buruak, eta pertsona horiek izatea, halaber, Koordinaziorako Talde Horizontaleko ordezkariak.

Kontuan izanik pertsona batek ezin duela berak egindako lanaren jarraipena egin eta lan hori egiaztatu, Egiaztapen Prozesuan norik parte hartzen duen eta bakoitzak zer rol duen zehazten da jarraian.

- **Kontrol programa betetzen dela gainbegiratzea:** agintaritza eskudun bakoitzean kontrol programetako arduradunak diren pertsonak egingo dute. Programetako arduradunak ikuskaritza-lanak egin dituzten pertsona berak badira, hierarkiari

dagokionez pertsona horien gainera dagoen norbaitek egin beharko du egiaztatpena.

- **Kontrol-sistemaren eraginkortasuna egiaztatzea:** agintaritza eskudun bakoitzean kontrol-planak exekutatzeari arduratzen diren erantzule funtzionalek edo hierarkikoei egingo dute.

4. EGIAZTAPENA GAUZATZEA:

Egiaztapen-prozesuak bi fase hauek ditu:

- **I. FASEA:** Kontrol-programa betetzen dela gainbegiratzea
- **II. FASEA:** Kontrol-sistemaren eraginkortasuna egiaztatzea.

I.Fasea: Kontrol-programa betetzen dela gainbegiratzea

Gainbegiratzea honela definitzen da: hierarkian gorago dauden mailek kontrol ofizialeko agenteen gainean egindako jardueren multzoa, haien funtzioak behar bezala betetzen diren eta elikagaien segurtasunaren arloko Europako eta Espainiako araudia aplikatzen den baloratzeko.

Unitateak berak egiten du gainbegiratze-lana bere kontrol ofizialeko agenteen gainean; etengabe egiten da urtean zehar, eta kontrol ofizialeko agente guztiak daude horren mende.

Ikuskatze horren bitartez, ikuskatze- eta kontrol-lanen arduradunek egiaztatuko dute ezarritako prozedura betetzen dela. Bukatutako espedienteen egiaztapen dokumentala eta egindako ikuskaritza-prozesuaren *in situ* egiaztatpena hartuko ditu barne.

- **Dokumentuak gainbegiratzea:** egiaztatu beharreko urtean amaitutako kontrol ofizialeko espedienteak egiaztatuko dira, espediente-kopuru adierazgarri bat hautatuta. Kontrol ofizialarekin lotutako dokumentu guztiak egiaztatzen dira paperean edo formatu elektronikoa; kontrol-aktez gain, ikuskapenarekin lotuta dagoen informazio guztia ere barne hartuko da, hala nola laginak hartzea, halakorik balego, aztertutako parametro analitikoak eta emaitzak operadoreari jakinaraztea.

Gainera, kontrol-programa bakoitzari buruzko dokumentazio guztia berrikusiko da, honako hauek barne: laneko protokolo edo prozedura normalizatuak, erabilitako datu-baseak edo aplikazio informatikoak, ikusatu beharreko operadoreak hautatzeko erabilitako sistema, egindako txostenak, etab.

- **In situ gainbegiratzea:** egiaztatu beharreko urtean egindako ikuskapenak tokian bertan gainbegiratuko dira, urte horretan egin beharreko ikuskapenen kopuru adierazgarri bat hautatuta. Ikuskatzaileari lagunduko zaio, berak egiten duen ikuskapen-prozesu berari jarraituz, ikuskapena prestatzen hasten denetik espediente itxi arte.

Taula honetan biltzen dira estatu-mailako programen koordinazio-mahaiek edo batzordeek autonomia-erkidego guztietarako ezarri dituzten kontrol-programen edo esparruen gutxieneko ikuskatzeen ehunekoak:

KONTROL PROGRAMA	Ikuskatze dokumentalaren %a	Insitu egindako gainbegiratzearen %a
Arrantzaren eta Akuikulturaren Higienea	10%	5%
Nekazaritza Higienea	4%	1%
Landareen Osasuna	3%	1%
Animalia Higienea, Ongizatea eta Osasuna	3%	1%
Animalien Elikadura	1%	1%
SANDACH	3%	1%
Elikagaien Merkataritza Kalitatea	5%	2%
Kalitatea Berezia	*	*
Ekoizpen Ekologikoa	2%	**

*Jatorri geografiko bati eta merkaturatu aurretik bermatutako espezialitate tradizionaleri lotutako Kalitate Bereziaren Kontrol Ofizialerako Programari dagokionez, gainbegiratzeek gutxienez kalitate-figura bakoitzaren unibertsoaren erro karratua estali beharko dute 2021-2025 aldian. Aldi berean, Jatorrizko Izendapen Babestu eta Babestutako Gune Geografikoaren Aipamen edo Bermatutako Espezialitate Tradizional guztiak ere estali beharko dira.

**Ekoizpen Ekologikoaren Kontrol Ofizialerako Programan, kontrol-agintaritzak, gutxienez behin, dokumentuak gainbegiratu beharko ditu 2021-2025 bitartean, eta agintaritza eskudunak kontrol-agintaritzaren egoitzara bisita egingo du.

Gainbegiratze-lanak *in situ* egiteko, agintari eskudunek laginketa-sistema bat aplikatuko dute, operadore motaren arabera gutxienez *in situ* gainbegiratze bat egiteko 2021-2025 aldian: nekazaritza-ekoizpena, abeltzaintza-ekoizpena, eraldaketa, merkaturatzea eta inportazioa.

Horrez gain, Abeltzaintza Ustiategietaren Higienearen, Nekazaritzako Ekoizpen Primarioaren Higienearen, Animalien Ongizatearen, SANDACH eta landare-osasunearen arloko programetan, arau-hausteak hauteman diren ikuskaritzetako akten %100en jarraipena egingo da.

Nekazaritzako eta abeltzaintzako higieneari eta animalien ongizateari buruzko programa espezifikoetan, baldintzak betetzen ote diren aztertuko da egiaztapen-prozesuan. Ildo horretan, baldintzekin lotutako ez-betetzeak dituzten akta guztietan, bai dokumentazioa eta bai bildutako kontrol-datuak araudi horren ardura duten foru-aldundietako zerbitzuei jakinaraziko zaizkie, horien arabera jokatu dezaten”.

Kontrol-programa betetzen dela gainbegiratzeko, I. eranskinean (dokumentuak gainbegiratzea) edo II. eranskinean (*in situ* gainbegiratzea) jasotako kontrol-orria erabiliko da.

Betetze-maila gainbegiratzean detektatutako adostasun-ezak larri (kontrola baliogabetu dezaketenak) edo arin edo txikiago (kontrola baliogabetzen ez dutenak) gisa tipifikatu ahal izango dira. Bi kasuetan, neurri zuzentzaile egokiak ezarri beharko dira (ikusi 6. atala).

II. Fasea: Kontrol sistemaren eraginkortasuna egiaztatzea

Kontrol-sistemaren eraginkortasuna egiaztatzea etengabeko prozesua da, eta kontrol ofizialeko prozedurak eta kontrol-programa bakoitzerako adostutakoa ebaluatzean datza, koherenteak diren eta aurrez ezarritako helburuak lortzea ahalbidetzen duten egiaztatzeke.

Egiaztapen horren oinarria izango da zehaztea ea egindako kontrolak egokiak diren 2021-2025 aldirako Euskadiko Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Planean eta gainerako kontrol-programa ofizialetan ezarritako helburuak lortzeko.

Helburu estrategikoak zenbateraino lortzen diren egiaztatzeke, planaren indarraldiaren amaieran egiaztatuko da eraginkortasuna, lehenengo urteko edo hasierako egoera kontuan hartuta. Gainera, helburu horiek zenbateraino lortzen ari diren ikusteko, urteko ebaluazioak egingo dira, eta ebaluatu ondoren zehaztuko da neurriak hartu behar diren ala ez (ikusi 6. atala).

5. EMAITZEN ETA ADIERAZLEEN AZTERKETA

5.1. Kontrol-programa betetzen dela gainbegiratzea

Aurreko atalean zehaztu berri diren gainbegiratzeak eta egiaztapenak egin ondoren, emaitza guztiak aztertuko dira eta honako adierazle hauek beteko dira (III. eranskina):

Ikuskatze-programaren betetze-mailari buruzko adierazlea (1. taula):

- $(\text{Egindako ikuskatze kopurua} / \text{Programatutako ikuskatze kopurua}) \times 100$

Ikuskatzeen adostasunari buruzko adierazlea (2. taula):

- $(\text{Adostasunik gabeko ikuskatze kopurua} / \text{Egindako ikuskatze kopurua}) \times 100$

Gainbegiratzearen ondorengo egokitzapenari buruzko adierazlea (2. taula):

- $(\text{Adostasunik gabeko eta neurri zuzentzaileak ikuskatze kopurua} / \text{Adostasunik gabeko ikuskatze kopurua}) \times 100$

Halaber, adierazle horiek kontrol-programa bakoitzean egindako egiaztapenaren azterketa kualitatiboa gauzatzeko ere balioko dute, bai eta programarentzat interesgarri diren adostasunik ezak eta horien ondorioz ezarri diren neurri zuzentzaileak xehetasunekin deskribatzeko ere (3. taula).

Era berean, txosten bat egin beharko da aurkitutako adostasun-ezei buruz, baita horiek kontrolean dituzten ondorioei buruz eta hartutako neurri zuzentzaileei buruz ere, gainbegiratze-lanaren emaitzak eta ondorioak ebaluatzeko.

Igualmente, se deberá realizar un informe sobre las No Conformidades encontradas, sus consecuencias sobre el control y las medidas correctivas realizadas, con el fin de evaluar los resultados de la supervisión y sus consecuencias.

5.2. Kontrol-sistemaren eraginkortasuna egiaztatzea

Kontrol-sistemaren eraginkortasuna egiaztatzeko, helburuetan eta adierazleetan oinarritutako sistema bat ezarri behar da.

2021-2025 aldirako Euskadiko Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Planak honako helburu estrategiko hauek ditu:

- 1. HE: Elikakatearen begi guztietako arriskuak prebenitzea.
- 2. HE: Elikagaien segurtasun gorena bermatzea euskal ekoizpen-sektorean, eta, beraz, osasun publikoaren babes gorena bermatzea.
- 3. HE: EAEko nekazaritza-elikagaien ekoizpenaren industria-lehiakortasuna eta babesa sustatzea.

Horrez gain, plan honetan jasotako kontrol-programa ofizial bakoitzerako, lortu nahi diren helburu espezifikoak zehazten dira.

6. ADOSTASUN EZAREN AURKAKO NEURRIAK

Autonomia-erkidegoetako kontrol-agintariak, gainbegiratze-txostenak ebaluatu ondoren, neurriak hartuko dituzte. Neurri horiek banakakoak edo kontrol-agente ofizial guztientzat izan daitezke, eta detektatutako adostasun-ezen arabera, honako hauek izan daitezke, besteak beste:

6.1. Kontrol-programa betetzen dela gainbegiratzea

A. Langileen kualifikazioa/prestakuntza

- Prestakuntza-jarduerak antolatzea (orokorrak edo espezifikoak)
- Ikuskatzaile talde bat prestatzea zeregin espezifikoetarako (jakintza-arlo jakin batzuetako espezialistak sortzea)
- "Praktiketako" aldi bat ezartzea langile berrientzat, esperientzia handiagoko ikuskatzaile batekin batera

B. Prozedura dokumentatuak

- Prozedura eta jarraibide eguneratuak banatzeko sistema berrikustea eta, beharrezkoa bada, hobetzea
- Jardunaldiak/bilerak antolatzea, prozedura edo jarraibide berriak aldatuz edo sartuz gero horiek argitzeko
- Prozedurak banatzeko arduradun bat izendatzea

C. Kontrol ofizialak gauzatzea

- Kontrol ofizialen programazioa ebaluatzea eta, beharrezkoa bada, berrikustea
- Ikuskatzaile bakoitzari esleitutako lan-karga ebaluatzea eta, behar izanez gero, birbanatzea
- Gaiaren inguruan beharrezkoak diren lan-prozedurak eta -jarraibideak zehaztea, ulermena errazteko eta interpretazio okerrak saihesteko
- Espediente batean inplikaturako kontrol-agente ofizialei txostenak eta dokumentazioa helarazteko ezarritako sistema berrikustea, eta, beharrezkoa bada, hobetzea
- Ikuskapenak egiteari, ez-betetzeak detektatzeari eta txostenak betetzeari, zabalatzeari eta artxibatzeari buruzko prestakuntza ematea
- Tresna informatikoak erabiliz gero, prestakuntza ematea

- Establezimenduak bisitatzeko ikuskapen-taldeak egitea
- Talde bat izatea gai teknikoei, araudiarekin lotutako gai konplexuei edo establezimendu jakin baten konplexutasunaren ondoriozkoei buruz aholkatzeko
- Lanpostuetan txandakatzea

D. Neurri zuzentzaileak hartzea

- Prozedura zehatz bat garatzea, modu objektiboan jasoko dituen araudiaren ez-betetzeak eta kasu bakoitzean hartu beharreko neurriak
- Hartzeke dauden neurriak dituzten establezimenduetan betetze-epak errazago berrikusteko dokumentu-sistema bat ezartzea
- Establezimenduetako jarraipen-bisitak egiteko ikuskapen-taldeak egitea

E. Neurri zuzentzaileen jarraipena

- Aktak betetzeari buruzko jarraibide argiak prestatzea, neurrien jarraipena errazago egiteko
- Establezimenduek hartutako neurriak berrikusteko epeak ezartzeko prozedura bat diseinatzea
- Neurri zuzentzaileen jarraipena esleitzea ohiko ikuskapenak egiten dituen ikuskatzailea ez den beste bati
- Neurrien jarraipena maila informatiko edo dokumentalean egitea erraztuko duen sistema bat diseinatzea

Hala ere, neurri jakin batzuk hartu aurretik, kontrol-sistema ofizialak berrikusteko gainerako sistemen bidez (auditoretzak eta gainbegiratzea) lortutako emaitzak hartuko dira kontuan.

6.2. Kontrol-sistemaren eraginkortasuna egiaztatzea

Eraginkortasuna egiaztatzeko adierazleak ebaluatu ondoren hartu beharreko neurriak honako hauek izan daitezke:

- Helburu estrategiko eta operatiboak aldatzea
- Planaren atalen baten edukia aldatzea
- Kontrol-programak egokitzea
- Kontrol-kanpaina berriren bat egitea edo programa berriak diseinatzea
- Euskadiko Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plan berria edo beste plan estrategiko bat diseinatzea
- Legegintza-proposamenak: Europako legegintza-proposamenetan jarrera finkatzea eta araudi nazionala garatzea

- Egitura organikoa edo eskumenen banaketa aldatzea, koordinazio-organoak sortzea, etab.
- Agintari eskudunekin koordinatutako lan-prozedura berriak garatzea
- Komunikazio-kanpainak eta gidak egitea, etab.
- Jardunaldiak, hitzaldiak, eta abar antolatzea

7. URTEKO TXOSTENAK GAUZATZEA

Bukatutako urteko kontrol-jardueren betetze-maila aztertu eta kontrol-sistemaren eraginkortasuna egiaztatu ondoren, txosten bat egingo da; bertan jasoko dira egiaztapen horien emaitzak eta lortutako emaitzen balioespena.

8. ERANSKINAK

- I. eranskina: kontrol-programa ofiziala betetzen dela egiaztatzeko agiriak gainbegiratzeko kontrol-orria
- II. eranskina: kontrol-programa ofiziala betetzen dela *in situ* gainbegiratzeko kontrol-orria
- III. eranskina: egiaztapen-txostenerako taulak

I. ERANSKINA

KONTROL-PROGRAMA OFIZIALA BETETZEN DELA DOKUMENTUAK GAINBEGIRATZEKO

KONTROL-ORRIA:

Akta-zk.:

Data:

Lekua:

Lehen ikuskapena / Zuzenketak egiaztatzeko ikuskapena:

Identifikazioak:

Ikuskatutako operadorea:

Ikuskapena egiten duen pertsona:

Egiatzapena egiten duen pertsona:

<u>EGIAZTATU BEHARREKO IRIZPIDEAK</u>	BAI	EZ	ED	Oharrak
<u>LANGILEEN KUALIFIKAZIOA/PRESTAKUNTZA/JARRERA</u>				
Ikuskatzaileek beren eskumen-eremurako egokiak diren ezagutzak dituzte (araudia, prozedurak, etab.)				
<u>AURREKO FASEA / DOKUMENTAZIOA</u>				
Ikuskapenarekin lotutako dokumentuak eskuragarri daude, erraz eskuratzeko modukoak dira eta ordenatuta daude				
Ikuskapenean erabili beharreko dokumentuak eguneratuta daude				
Erabilitako datu-baseak eta/edo erroldak eskuragarri eta eguneratuta daude				
Kontrol-programan zehaztutako arrisku-irizpideen arabera hautatu da ikuskapen-unitatea				
<u>KONTROLA EGITEA/AKTA BETETZEA</u>				
Dagokion kontrol ofizialeko akta erabili da*				
Ikuskapenari buruzko datu guztiak bete dira. Lekua, data, ordua, etab.				
Operadorearen datu guztiak bete dira. Sozietatearen izena, ordezkaturako pertsona, helbidea, telefona...				
Ikuskatzailearen datu guztiak bete dira. Izen-abizenak, NANA				
Akta behar bezala bete da atal guztietan				
Laginak hartzeko akta behar bezala bete da				
ED (ez dagokio) erantzunez gero, justifikatuta dago				
Ez-betetzeak behar bezala detektatu eta sailkatu dira				
Ez-betetzei buruzko oharrak argiak eta laburrak dira				
Operadoreari kontrolaren emaitzaren eta proposatutako neurrien eta horiek zuzentzeko epearen berri eman zaio				

Aktari erantsi zaio operadoreak ez-betetzeei buruz eskura duen dokumentazio guztia				
Ikuskapenari buruzko informazio guztia behar bezala artxibatu da				
Ikuskatzaileak ikuskapen-akta sinatu du*				
Akta operadoreak sinatu du, eta uko eginez gero, inguruabar hori jaso da*				
<u>HARTUTAKO NEURRIAK</u>				
Ez-betetzeen aurrean hartu beharreko neurri egokiak proposatu dira				
Akatsak zuzentzeko eta/edo dokumentuak aurkezteko epeak eman dira				
Kontrolen ondorioz sortutako jarduketak aplikatu dira (zehapenak, etab.)				
<u>JARRAIPENA</u>				
Neurriak hartuz gero, horien betetze-mailaren jarraipena egin da				
Ezarritako epean egin dira				
Operadoreak aplikatutako neurri zuzentzaileak eraginkorrak izan dira				
Larritasun handiagoko neurri gehigarriak hartzen dira epeak betetzen ez direnean edo ezarritako neurriak hartzen ez direnean				

* Irizpide horiek bat ez badatoz, kontrola baliogabetu egiten da.

II. ERANSKINA

KONTROL-PROGRAMA OFIZIALA BETETZEN DELA *IN SITU* GAINBEGIRATZEKO

KONTROL-ORRIA:

Akta-zk.:

Data:

Lekua:

Lehen ikuskapena / Zuzenketak egiaztatzeko ikuskapena:

Identifikazioak:

Ikuskatutako operadorea:

Ikuskapena egiten duen pertsona:

Egiaztapena egiten duen pertsona:

<u>EGIAZTATU BEHARREKO IRIZPIDEAK</u>	BAI	EZ	ED	Oharrak
<u>LANGILEEN KUALIFIKAZIOA/PRESTAKUNTZA/JARRERA</u>				
Ikuskatzaileek beren eskumen-eremurako egokiak diren ezagutzak dituzte (araudia, prozedurak, etab.)				
Ikuskatzaileek operadorearekin duten tratua egokia da (atsegina, hizkera egokia, errespetuzkoa...)				
<u>AURREKO FASEA</u>				
Ikuskapenerako behar den informazioa bildu da (aurreko aktak, espedienteak, erabili beharreko ikuskapen-aktak...)				
Laginak hartzeko materiala prestatu da (poteak, poltsak, zigiluak...)				
Ikuskatzaileek operadoreari abisatu diote eta eduki beharreko dokumentazioa jakinarazi diote				
<u>DOKUMENTAZIOA</u>				
Ikuskapenarekin lotutako dokumentuak eskuragarri daude, erraz eskuratzeko modukoak dira eta ordenatuta daude				
Ikuskapenean erabili beharreko dokumentuak eguneratuta daude				
Erabilitako datu-baseak eta/edo erroldak eskuragarri eta eguneratuta daude				
Kontrol-programan zehaztutako arrisku-irizpideen arabera hautatu da ikuskapen-unitatea				
<u>KONTROLA EGITEA/AKTA BETETZEA</u>				
Dagokion kontrol ofizialeko akta erabili da*				
Ikuskapenari buruzko datu guztiak bete dira. Lekua, data, ordua, etab.				
Operadorearen datu guztiak bete dira. Sozietatearen izena, ordezkaturako pertsona, helbidea, telefonoa...				

Ikuskatzailearen datu guztiak bete dira. Izen-abizenak, NANA				
<i>In situ</i> egiaztatu dira kontrol-aktaren eskakizun guztiak				
Akta behar bezala bete da atal guztietan				
ED (ez dagokio) erantzunez gero, justifikatuta dago				
Operadoreari aukera eman zaio aktan oharrak sartzeko				
Ikuskatzaileak ikuskapen-akta sinatu du*				
Akta operadoreak sinatu du, eta uko eginez gero, inguruabar hori jaso da*				
Kontrol-aktaren kopia bat eman zaio operadoreari				
Ikuskapenari buruzko informazio guztia behar bezala artxibatu da				
<u>LAGINAK HARTZEA</u>				
Laginak hartzeko akta behar bezala bete da				
Laginak hirukoiztuta hartu dira				
Laginak hartzeko laginketa ofizialaren metodoari jarraitu zaio				
Laginen zigiluak laginen bortxaezintasuna eta estankotasuna babesten ditu				
Laginak baldintza egokietan kontserbatzeko neurri egokiak hartu dira				
Operadoreari azaldu zaio emaitzekin ados ez badago analisi bat egin daitekeela (erabakigarria), eta laginaren kontserbazioari buruzko beharrezko informazioa eman zaio				
<u>EZ-BETETZEAK</u>				
Ez-betetzeak behar bezala detektatu eta sailkatu dira				
Ez-betetzeei buruzko oharrak argiak eta laburrak dira				
Operadoreari kontrolaren emaitzaren eta proposatutako neurrien eta horiek zuzentzeko epearen berri eman zaio				
Aktari erantsi zaio operadoreak ez-betetzeei buruz eskura duen dokumentazio guztia				
<u>HARTUTAKO NEURRIAK</u>				
Ez-betetzen aurrean hartu beharreko neurri egokiak proposatu dira				
Akatsak zuzentzeko eta/edo dokumentuak aurkezteko epeak eman dira				
Kontrolen ondorioz sortutako jarduketak aplikatu dira (zehapenak, etab.)				
<u>JARRAIPENA</u>				
Neurriak hartuz gero, horien betetze-mailaren jarraipena egin da				
Ezarritako epean egin dira				
Operadoreak aplikatutako neurri zuzentzaileak eraginkorrak izan dira				
Larritasun handiagoko neurri gehigarriak hartzen dira epeak betetzen ez direnean edo ezarritako neurriak hartzen ez direnean				

* Irizpide horiek bat ez badatoz, kontrola baliogabetu egiten da.

II. ERANSKINA

KONTROL-PROGRAMA OFIZIALA BETETZEN DELA *IN SITU* GAINBEGIRATZEKO

KONTROL-ORRIA:

Akta-zk.:

Data:

Lekua:

Lehen ikuskapena / Zuzenketak egiaztatzeiko ikuskapena:

Identifikazioak:

Ikuskatutako operadorea:

Ikuskapena egiten duen pertsona:

Egiaztapena egiten duen pertsona:

EGIAZTATU BEHARREKO IRIZPIDEAK	BAI	EZ	ED	Oharrak
<u>LANGILEEN KUALIFIKAZIOA/PRESTAKUNTZA/JARRERA</u>				
Ikuskatzaileek beren eskumen-eremurako egokiak diren ezagutzak dituzte (araudia, prozedurak, etab.)				
Ikuskatzaileek operadorearekin duten tratua egokia da (atsegina, hizkera egokia, errespetuzkoa...)				
<u>AURREKO FASEA</u>				
Ikuskapenerako behar den informazioa bildu da (aurreko aktak, espedienteak, erabili beharreko ikuskapen-aktak...)				
Laginak hartzeko materiala prestatu da (poteak, poltsak, zigiluak...)				
Ikuskatzaileek operadoreari abisatu diote eta eduki beharreko dokumentazioa jakinarazi diote				
<u>DOKUMENTAZIOA</u>				
Ikuskapenarekin lotutako dokumentuak eskuragarri daude, erraz eskuratzeko modukoak dira eta ordenatuta daude				
Ikuskapenean erabili beharreko dokumentuak eguneratuta daude				
Erabilitako datu-baseak eta/edo erroldak eskuragarri eta eguneratuta daude				
Kontrol-programan zehaztutako arrisku-irizpideen arabera hautatu da ikuskapen-unitatea				
<u>KONTROLA EGITEA/AKTA BETETZEA</u>				
Dagokion kontrol ofizialeko akta erabili da*				
Ikuskapenari buruzko datu guztiak bete dira. Lekua, data, ordua, etab.				

Operadorearen datu guztiak bete dira. Sozietatearen izena, ordezkaturako pertsona, helbidea, telefona...				
Ikuskatzailearen datu guztiak bete dira. Izen-abizenak, NANA				
<i>In situ</i> egiaztatu dira kontrol-aktaren eskakizun guztiak				
Akta behar bezala bete da atal guztietan				
ED (ez dagokio) erantzunez gero, justifikatuta dago				
Operadoreari aukera eman zaio aktan oharrak sartzeko				
Ikuskatzaileak ikuskapen-akta sinatu du*				
Akta operadoreak sinatu du, eta uko eginez gero, inguruabar hori jaso da*				
Kontrol-aktaren kopia bat eman zaio operadoreari				
Ikuskapenari buruzko informazio guztia behar bezala artxibatu da				
<u>LAGINAK HARTZEA</u>				
Laginak hartzeko akta behar bezala bete da				
Laginak hirukoiztuta hartu dira				
Laginak hartzeko laginketa ofizialaren metodoari jarraitu zaio				
Laginen zigiluak laginen bortxaezintasuna eta estankotasuna babesten ditu				
Laginak baldintza egokietan kontserbatzeko neurri egokiak hartu dira				
Operadoreari azaldu zaio emaitzekin ados ez badago analisi bat egin daitekeela (erabakigarria), eta laginaren kontserbazioari buruzko beharrezko informazioa eman zaio				
<u>EZ-BETETZEAK</u>				
Ez-betetzeak behar bezala detektatu eta sailkatu dira				
Ez-betetzeei buruzko oharrak argiak eta laburrak dira				
Operadoreari kontrolaren emaitzaren eta proposaturako neurrien eta horiek zuzentzeko epearen berri eman zaio				
Aktari erantsi zaio operadoreak ez-betetzei buruz eskura duen dokumentazio guztia				
<u>HARTUTAKO NEURRIAK</u>				
Ez-betetzeen aurrean hartu beharreko neurri egokiak proposatu dira				
Akatsak zuzentzeko eta/edo dokumentuak aurkezteko epeak eman dira				
Kontrolen ondorioz sortutako jarduketak aplikatu dira (zehapenak, etab.)				
<u>JARRAIPENA</u>				
Neurriak hartuz gero, horien betetze-mailaren jarraipena egin da				
Ezarritako epean egin dira				
Operadoreak aplikaturako neurri zuzentzaileak eraginkorrak izan dira				
Larritasun handiagoko neurri gehigarriak hartzen dira epeak betetzen ez direnean edo ezarritako neurriak hartzen ez direnean				

* Irizpide horiek bat ez badatoz, kontrola baliogabetu egiten da.

III. ERANSKINA

I.TAULA: IKUSKATZE.PROGRAMAREN BETETZE-MAILA

KONTROL-PROGRAMA	EGINDAKO KONTROLAK	PROGRAMATUTAKO GAINBEGIRATZEAK		EGINDAKO GAINBEGIRATZEAK		IKUSKATZE-PROGRAMAREN BETETZE- MAILAREN %a	
		DOKUMENTALAK	IN SITU	DOKUMENTALAK	IN SITU	DOKUMENTALAK	IN SITU

II. TAULA: GAINBEGIRATZEAREN ADOSTASUN-GRADUA

KONTROL-PROGRAMA	EGINDAKO GAINBEGIRATZEAK, GUZTIRA	DESADOSTASUN BAT DUTEN GAINBEGIRATZEAK	DESADOSTADUNEN BAT DUTEN IKUSKATZEEN EHUNEKOA, ZENBATEKO OSOTIK	DESADOSTADUNEN BAT DUTEN ETA NEURRI ZUZENTZAILEREN BAT HARTU DUTEN GAINBEGIRATZEAK

3. TAULA: EGIAZTAPENeko DESADOSTASUN MOTAK

KONTROL-PROGRAMA	DESADOSTASUN MOTAK	MOTA BAKOITZEKO DESADOSTASUNAK	MOTA BAKOITZEKO EHUNEKOA, DESADOSTASUNEN ZENBATEKO OSOTIK
	K. OFIZIALA BALIOGABETU DEZAKEEN DESADOSTASUNA		
	DESADOSTASUN TXIKIA EDO ARINA		